

Ziklo berri baterako GPS-a

Iker Martinez de Lagos

Topagunea

bulegoa@topagunea.com

Sarrera-data: 2012-10-30 | Onartze-data: 2012-11-30

Laburpena. Euskalgintza eta euskararen normalizazioa ziklo amaiera batera heldu direla azaldu dut artikuluan, gaur egungo baldintzatan orain arteko estrategiekin goia jo dugula esaten baitigute datuek. Ziklo berri baterako prestatu behar dugu euskalgintza eta ziklo berri horretako oinarriez zenbait proposamen egiten saiatu naiz, azken urteotan Topaguneak egindako hausnarketa prozesuko ondorioetatik abiatuta. • **Hitz-gakoak:** *euskalgintza, komunitatea, eraldaketa, elkarlana.*

Abstract. In this paper I have dealt with the end of the cycle in the activity in support of the Basque language and the normalisation of the Basque language, because the data indicate that in today's circumstances we have reached a ceiling with the strategies used so far. We have to ready the activity in support of the Basque language for a new cycle and I have tried to make some proposals on the bases for this new cycle, using the conclusions of the reflection process carried out by Topagunea [federation of Basque language and cultural associations] in recent years. • **Key words:** *activity in support of the Basque language, community, transformation, co-operation.*

Euskal Autonomi Erkidegoko euskararen legeak 30 urte; Nafarroako Euskararen Foru Legeak (Ley del Vasce) 26 urte. Euskaltzaindiak 100 urte beteko ditu laister. Ia 100 urte lehen ikastola sortu zenetik eta mende erdia ikastolen loralditik. Helduen Euskalduntze Alfabetatzearen sektoreak ia 50 urte. Euskal Herrian Euskarazek 33 urte, Euskara Elkar-teen Mugimenduak 29, Topaguneak eta Kontseiluak 15.

Urte asko pasa dira gaur egun euskararentzat eta euskaldunontzat garrantzitsuak diren hainbat erakunde, lege eta instituzioren sorreratik. Ez dira alperrik pasa, gainera, urteok. Baina euskalgintza inflexio momentu batera heldu da eta horixe da hurrengo lerroetan azaldu eta hausnartu nahi genukeena. Ziklo aldaketa baten aurrean gaude euskalgintzan. Saiatuko gara artikuluan azaltzen zergatik uste dugun ziklo aldaketa horri errotik heldu behar diogula, gaiab sartu beharra dugula eta zein oinarri izango diren gure iritzian garrantzitsuak ziklo berrirako.

BAT aldizkariaren zenbaki honetan guk baino azterketa sakonagoak egingo dituzten adituek parte hartu dute, eta beraz, ez da gure asmoa artikulua honetan neurketaren datuen irakurketa sakon bat egitea, ezpada, datuen argitan, euskaltzaleok hartu beharreko zenbait erabakiren gaineko proposamenak egitea.

BIDEGURUTZEAK

I

Kale Erabilera Neurketaren emaitzen aurkezpen txostena horrela hasi du Soziolinguistika Klusterrak izendatutako neurketaren Batzorde Teknikoak: *“Duela hamar urtetik hona euskararen kale-erabilera bere horretan dagoela esan daiteke, trabatuta”*. Esaldia eta laburpen txostena aztertzerakoan irakurketa ezkorregia dela esan du zenbaitek, baina emaitzen laburpen errealista dela esan daiteke. Datuz datu begiratuta, zenbakietako askok lehen irakurketa hori baieztatzen dutela ikusten da.

Edonola, datuek diotenaz gain, nago emaitza honek bat egiten duela azken urteotan euskaltzaleon artean egon den uste batekin, normalizazio prozesua ez aurrera ez atzera egotearen susmoarekin. Kale erabilera da sintomatako bat, baina gehiago ere badaudela esan daiteke; inkesta soziolinguistikoak eman dizkigu beste pista batzuk, esaterako, eta euskaltzaleon kezka orokorragoa dela ikusten da: urtetako garapen positiboa gelditu egin zen aspaldi, aurreko hamarkadatan hainbat faktorek izandako aurrerapausuak eten egin ziren duela zenbait urte eta geldialdi batean gaude geroztik. Baina Kale Erabilera Neurketaren Batzorde Teknikoak gehiago ere esan digu ondorioen aurkezpenean: *“Egungo baldintza soziolinguistikoekin euskararen erabilerak goia jo du”* dio txostenak.

Ziklo aldaketa baten aurrean gaude euskalgintzan.

Urtetako garapen positiboa gelditu egin zen aspaldi, aurreko hamarkadatan hainbat faktorek izandako aurrerapausuak eten egin ziren duela zenbait urte eta geldialdi batean gaude geroztik.

**Hizkuntza
komunitate
modura
bidegurutze
batera heldu
gara, eta egoera
honetan bi
aukera ditugu:
baldintza
soziolinguistikoak
aldatzeko
ahalegin
partekatu bat
egin edo, bestela,
orain geldialdi
dena, etorkizun
ez oso luze
batean
atzerapausoa
izango da.**

Eta hor dago egungo egoeraren klabeetako bat: euskara eta euskaldunontzat baldintzak aldatu behar ditugu, aldatzen ez badira, orain goia jota eta etenda dagoena, bilakaera negatiboan sartuko baita bihar-etzi; egiten ari garena birpentsatu eta arlo ezberdinetan gogoeta egin behar dugu: Hizkuntza Politika, gizarte mugimenduaren funtzioak eta jarduna, hizkuntza plangintza, hizkuntzaren gaineko diskurtsoak, ...

Hizkuntza komunitate modura bidegurutze batera heldu gara, eta egoera honetan bi aukera ditugu: baldintza soziolinguistikoak aldatzeko ahalegin partekatu bat egin edo, bestela, orain geldialdi dena, etorkizun ez oso luze batean atzerapausoa izango da.

Ziklo aldaketarako momentua heldu dela esateko hainbat zantzu daude eta lehenengo eta behin, etxe barrutik hasi behar gara: euskalgintzatik.

Euskararen gizarte mugimenduaren loraldiak pasa zituen bere garairik onenak, zalantzarik gabe. Ikastolen sorrera eta hedapena, Helduen Alfabetatzearen garapena, gure industria txikien lehen urratsak, euskara elkarten hazkundea eta loraldia, euskara erdigunean zuen kulturgingintzarena, hedabideena (toki hedabideen eztanda), ... Ondoren etorri ziren egituratzea, Kontseiluaren sorrera, estadioak betetzea, ... baina hortxe amaitu zen eta azken urteetan ez dugu antzekorik lortu, eta ez da izango saiatu ez garelako. Balorazio hau egiteko gizartearen termometro ona da, gizartea ez baita hainbeste aldatu...

Baina irakurketa osoa ez da ezkorra. Euskalgintzaren urtetako lan eta ahaleginak jokaleku ikaragarri bat zabaldu digu, orain arte euskararen gizarte mugimenduak izan ez duena: urtetan sortutako egitura eta egitasmoek beste askok nahi luketen azpiegitura eskaintzen digute; baina inpresioa dut azken urteetan arlo askotan (ez guztietan) goia jo dugula. Batetik, krisialdiak eraginda eraikitako hainbat azpiegitura galtzen joan gara azken hilabeteetan eta, bestetik, gizarte mugimendu modura izan dugun indarra apaldu egin zaigu (beste hainbat mugimenduri pasa zaion bezala). Baina hortaz gain, sektorean hobetzekoak ditugu: osagarritasuna lantzea edo euskalgintza barruko kohesioa, adibidez.

Beraz, euskalgintza ere bidegurutzean dugu, zirt edo zart egin behar dugu euskararen gizarte eragileok, euskalgintza klabea baita lehenago aipatutako baldintza berrien sorreran eta euskalgintzaren osasuna zainetzea bertan ari garen euskaltzaleen erantzukizuna baita.

Administrazioan ere berdin... Euskararen Legearen ondoren euskaldunok joan gara gure bidea egiten erakundeetan (teknikari andana dago, euskara zerbitzuak, inoiz baino administrazio euskaldunagoa gaitasunari dagokionean), baina instituzioetan euskararen garapena ere

gelditu egin dela ematen du. Administrazioan gero eta funtzionario euskaldun gehiago dago, baina hizkuntza ez da lanerako tresna. Zerbitzuak euskaraz bermatzeko prestatu dira erakundeak (erakunde asko, ez guztiak), baina ematen du ez dagoela nahikoa inizatibarik gobernuek berezkoa duten funtzioa betetzeko, arautzeko.

Bidegurutzera heldu gara beraz, eta bidegurutze honetan eragile arteko harremanean, edo harreman ezean, bizitakoak baztertzeko ahalgina egin beharko litzateke; ardurak elkarri leporatzeko joerarekin amaitu beharko genuke. Izan ere, bi fronte nagusitan banatu dira azken urteetan eragileak eta fronte bakoitzak besteari pasa dizkio egoeraren ardura nagusiak; estrategia agortuak dira horiek, batarena bezala, bestearena ere.

Alde batetik administrazioei eta berauen hizkuntza politikari leporatu zaizkie euskararen eta euskal hiztunon gaitzen ardura. Eta arrazoi puntu bat badago, noski, hizkuntza politika uzkur eta herrenak aplikatu direla esan denean (aplikatu diren kasuetan, sarri hizkuntza politikarik eza edo kontrako hizkuntza politikak ere ezagutu izan ditugu eta). Baina euskalgintzaren aldetik, mezu guztia hortxe geratzea ez litzateke zuzena eta zintzoa izango. Hizkuntza politika okerrarena arazo bat da 2012ko Euskal Herrian, baina ez arazo bakarra (eta ezta ere arazo nagusia, ausartuko nintzateke esatera).

Beste diskurtso batean norbanako hiztunei leporatzen zaizkie erantzukizun eta ardurak; diskurtso horren arabera, inoizko erabilera daturik onenak izateko baldintzak ditugunean (ezagutza hazten doala), erabilera ez da hazten eta hori hiztunei leporatzen zaie. Aukerak sortu sortu ditugu, zabaldu ditugu euskaraz hitz egiteko aukera ematen diguten espazioak eta guneak, baina neurri horiek berez eta berauek bakarrik, ez dakarte erabilera orokortzerik.

Diskurtso honetan baina, bada beste arazo bat, euskararen gizarte mugimendu antolatua ekarpena gutxiesteara eta gizarte mugimenduari arinegi joan nahia leporatzea: “ameskeria”, “boluntarismo”, “maximalismo” eta antzeko kontzeptuak irakurri eta entzun ahal izan dira azken urteotan. Eta hau ere ez da justua urteotan guztiotan euskaldunontzat gizarte orekatuago baten alde lanean ari izan diren pertsona eta erakundeentzat. Hizkuntza komunitate antolatua, euskalgintza, izan da urtetan hizkuntzaren berreskurapenean aitzindaria, eta aitzindaritza horretarako funtsezkoak izan dira ametsak, helburu argiak eta bizi nahia. Gaur egun euskara eta euskaldunon komunitatea dauden lekuan badaude, euskalgintza eta euskaldun antolatuei esker da.

***Euskalgintza
batetik,
krisialdiak
eraginda
eraikitako
hainbat
azpiegitura
gaitzen joan gara
azken
hilabeteetan eta,
bestetik, gizarte
mugimendu
modura izan
dugun indarra
apaldu egin zaigu
(beste hainbat
mugimenduri
pasa zaion
bezala). Baina
hortaz gain,
sektorean
hobetzekoak
ditugu:
osagarritasuna
lantzea edo
euskalgintza
barruko
kohesioa,
adibidez.***

**Hizkuntza
politika
okerrarena arazo
bat da 2012ko
Euskal Herrian,
baina ez arazo
bakarra (eta ezta
ere arazo
nagusia.**

SEINALEAK

I
Bidegurutzera helduta, etorkizuneko estrategien nondik norakoak markatzeko interesgarriak izan diren zenbait seinale utzi dizkigu Kale Erabileraren VI. Neurketak. Batzuk aipatu nahi nituzke, adierazgarriak, nire ustez.

Komunitatea trinkotzea. Kale erabileraren neurketa zonaldeka begiratuta, datu batzuk kolpean deigarri egiten zaizkigu. Zonalde soziolinguistiko euskaldunenetan gero eta erabilera datu hobekak ikusten diren artean, hirigune eta zonalde soziolinguistiko erdaldunenetan datuak kezkarriak dira, kasu batzuetan euskararen erabilera datuak oso baxuak direlako (Bilbo, Gasteiz eta Iruñea, kasurako) eta beste batzuetan datuetan atzerakada ikusten delako.

Faktore askok eragingo dute datu hauetan, baina komunitatea trinkotzeak duen garrantzia handia dela esango nuke. Neurketaren ondorioetan honakoa esaten da, besteak beste: *“Euskaldunen zenbatekoa kontuan hartuta, erabilera datuak estatistikoki espero zitezkeenak baino hobekak dira.”*. Komunitatearen trinkotzearekin zerikusia duen ondorioa da, komunitate barneko harreran sareak zaintzeari garrantzia ematearekin lotutako ondorioa.

Hurrengo urteotan, euskaltzaleok indar berezia jarri behar genuke tokian tokiko hizkuntza komunitatea trinkotzen (lan kualitatiboa da, ahalegin handia eskatzen duena, baina garrantzitsua). Orain arteko estrategietan trinkotzeak izan duen lekua baino garrantzitsuagoa behar luke etorkizunean nire ustez (bai administrazioaren politikatan eta baita euskalgintzaren erronketan ere).

Hizkuntza komunitate indartsuagoa eta zabalagoa behar dugu sortzeko, eragiteko, erakartzeko, garatzeko, Komunitate horrek gainera gaitasuna izan behar du euskarara eta euskaldunongana motibazio ezberdinetatik hurbiltzen den jendea bere baitan biltzeko. Batzuk hautu identitariotik hurbilduko dira, beste batzuk hautu estetikoagoak egingo dituzte. Edonola, guztien beharra dago, bakoitzak bere lekua beteko du komunitatean eta bere erantzukizuna izango du. Komunitate sendo batek motibazio ezberdinetatik jendea erakartzeko oinarria emango digu.

Gune eta funtzio hegemonikoak behar ditu gurea moduko hizkuntza batek. Azken urteotan arnaguneen babes euskalgintzan gero eta printzipio onartuagoa dela esango nuke. Herri euskaldunak babestearen inguruan adostasun gero eta zabalagoa dago eta lehen hainbeste aipatzen ez zen guneetan ere kontuan hartzen hasi da. Babes hori artikulatzen asmatzea funtsezkoa izango da eta horretarako UEMA oso garrantzitsua da. Hiriguneetako arnaguneez gutxi hitz egiten da ordea,

eta datuak ikusita, nago hurrengo urteetan askoz ere garrantzia handiagoa eman behar diegula. Gune populatuenez ari gara, euskaldun kopuru altua duten gunez, nahiz eta komunitatea sakabanatuagoa dagoen. Hego Euskal Herrian Bilbo, Gasteiz, Iruñea eta hiriburuen bueltako eskualdeetako euskaldun komunitateentzako arnaguneak antolatzea lehentasunezkoa da, ez soilik aipatu moduan, komunitate hauetan hiztun kopurua altua delako, baita ingurune hauek duten garrantziagatik.

Transmisioaren auzia. Kale erabileraren neurketan datu asko nabarmendu daitezke, baina bi azpimarratzea gustatuko litzaidake: batetik, Hego Euskal Herrian haur eta gazteen artean erabileraren datuak geldialdia izan du kasurik onenetan, eta atzeraldiak gehienetan (Ipar Euskal Herrian bestelako datua izan dugu zorionez); bestetik, elkarrizketatan haurren presentziak erabileran nola eragiten duen aztertzea interesgarria da.

Ezagutzan ustez irabazi handienak izan ditugun adin tartetan kale erabileran blokeoa egoteak zer pentsatua ematen du. Eta transmisiora joaten da kezka, hau aztertzerakoan. Ezagutzaren gaiari hezkuntzaren bidez erantzunez, euskaldun kopurua sortzeari lehentasuna eman eta transmisioari behar besteko garrantziarik eman ez ote diogun pentsatu behar genuke: motibazioan behar beste eta behar bezala eragiten ari garen (motibazio mota ezberdinetan), zer nolako gaitasunarekin ari diren sortzen haur eta gazte euskaldunak, zer transmisio jasotzen ari diren egungo haur eta gazteak (hirigune eta herri populatuenetako gazteek, nagusiki), komunikabideen bidez zer eredu jasotzen ari diren, ...

Bestetik, neurtutako elkarrizketatan haurren presentziak erabileran nola eragiten duen ikusi dugu, esan bezala. Eragin hau gainera, adin guztietan ematen da: umeak daudenean tartean, adin guztietako hiztunek erabiltzen dute gehiago euskara, umerik ez dagoenean baino. Haurren hizkuntza ohituratan eta hizkuntzarekiko jarreratan eragiteko kontzientzia ondo txertatua dagoela berresten du datuak, gizarteak ondo barneratu duela haurren ezagutzan eragiteko, etxean ere lan egin behar dela. Baina haurrik ez dagoenean portaera aldatzeak pista berri bat ematen du, kontzientziarekin batera koherentzia landu beharra dugunaren ideia.

Seinale batzuk dira, euskalgintzaren hurrengo urteotako lehentasun eta eginkizunak zehazterakoan kontuan hartu beharrekoak, besteak beste.

Gaur egun euskara eta euskaldunon komunitatea dauden lekuan badaude, euskalgintza eta euskaldun antolatuei esker da.

**Zonalde
soziolinguistiko
euskaldunenetan
gero eta erabilera
datu hobeak
ikusten diren
artean, hirigune
eta zonalde
soziolinguistiko
erdaldunenetan
datuak
kezagarriak
dira.**

GPSA

I

Baldintzak aldatzea tokatzen zaigu, beraz, norabide berriak markatzea eta ibilbide berri horiei sendo heltzea. Izan ere, errezeta zaharrekin ari gara helburuak lortu nahian eta azken urteotan jokalekua aldatuta aurkitu dugu; duela 30 urtetako mapekin ari gara gaur egungo bideetan eta errepideak aldatu dizkigute.

Bada garaia euskalgintzan ari garenok eta baita euskaldunon etorkizunarekin konprometituta dauden guztiok ziklo berri bati ekiteko, ahalik eta modurik adostuenean. Gogoeta sakon horren parte izan behar dira, alde batetik, euskalgintza (gizarte erakunde, enpresa eta era guztietako gizarte mugimenduak), eta bestetik, administrazioa eta bere arduratan dabiltzan eragile politikoak. Eta bi horietaz hitz egiten dut batez ere, baldintza modura, euskaldunon komunitate bizi batekin konpromisoa dutenak aipatuz. Izan ere, kontsentsuaz asko hitz egiten den garaiotan, ahalik eta akordio zabalaren alde egin behar dela argi dut, baina kontsentsu horiek helburu argien gainean egin behar dira eta horrek oinarrizko akordio bat eskatzen du aldekotasunari dago-kionean.

GPS berria behar dugu, abiapuntu eta helmuga argituta errepideak etengabe markatuko dizkigun tresna. Nondik abiatu eta nora heldu argituta, bide orria eragile guztien artean ahalik eta gehien adostu beharko genuke. Ziklo berrirako, GPSa osatzea denon ardura den arren, aro berriaren klabe batzuk proposatzen hasiko gara.

1. Hasteko, lehendik ere aipatutako ideia bat: orain arteko estrategien berrikusketa sakona egitea tokatzen zaigu eragile guztioi, bakarka eta denon artean. Alde horretatik, Topaguneak abiatuta du lana, bi-hiru urtetako prozesuan bere norabidea berbideratzeko saioa egin du eta. Euskalgintzako eragileen artean ere egin beharko genuke eta horretarako daukagun egitura Kontseilua da. Gure iritziz, aurrera begiratzeko, garrantzitsua da orain arte egindakoaren irakurketa kritikoa egitea, autokritika eraikitzailea, beti ere, estrategia berri eraginkorrak eraikitzeke borondatearekin.

2. Helburuak berrikusi eta zehaztetik abiatu beharko litzateke aipatutako hausnarketa hori. Euskaltzale antolatuek pentsatu eta erabaki egin behar dugu hiru edo lau hamarkada barru non egon nahi dugun, zer nolako gizartea nahi dugun, euskaldun moduan komunitate bizi batean egon ahal izateko. Hausnarketa horretan nahia eta aukera

uztatu behar dira, hau da, jakin behar dugu zer nolako gizartera jo nahi dugun (zer proiektu konpartitzen dugun), baina egingarri dena neurtuz. Estrategiaren gutxieneko batzuk konpartitzeko, etorkizunari buruzko bisioa konpartitua izan behar da.

Aipatutako puntu honekin lotuta, garrantzitsua da bai estrategiak diseinatzerakoan, baina baita eguneroko lanean ere, ezagutzan (ezagutza zientifikoan) oinarritutako irakurketak izatea. Zoritzarrez, hizkuntza politikari lotutakoetan ez da beti horrela izan, sarri nagusitu baitira iritzitan oinarritutako irakurketak eta politikak. Herri honetan ezagutza soziolinguistikoa nahikoa lantzen da eta beraz, Soziolinguistika Klusterra moduko erakundeek garrantzia berezia dute ikerketa egin eta ondoren, aplikatzen diren politiketan, ezagutzatik eragiteko. Euskalgintzak estrategia komunikatibo indartsuagoa behar du, ados, baina estrategia komunikatibo hori, errealitatearen ezagutza zorrotzean oinarritu behar da.

3. Estrategiari dagokionez, egiten dugunaren edukiari eta nolokotasunari begiratzea tokatzen zaigu. Estrategia berrian, kopuruen obsesio hutsari aspektu kualitatiboagoak gehitu behar dizkiogu.

Azken hamarkadetan, egoerak horrela eskatuta, kopuruari eta eskaintzari garrantzia handia eman diogu. Ezagutza eta erabilerak markatu dituzte batez ere azken lau edo bost hamarkaden estrategiak: hiztun kopurua handitu beharra zegoen (oraindik ere badago) hasieran, eta, ondoren, hiztun horientzako erabilera guneak sortzen jarri dugu lehentasuna. Horrela lortu dugu, besteak beste, hezkuntza sistemaren bidez (nagusiki EAEn) edo euskaltegi sareari esker, euskaradunon kopurua nabarmen haztea eta, azken bi hamarkadetan, eragile askoren ekarpenari esker euskaraz eskaintzen dena (kultura, aisialdia, hedabideak, merkataritza, ...) asko zabaltzea. Kopuruaren estrategia izan da. Eta estrategia hau behar-beharrezkoa izan da; ondo erantzun diete euskaldunok urteotan izan ditugun beharrei, baina bere horretan, beraiek bakarrik, agortu egin dira.

Azken urteotan baina, beste kontzeptu eta proposamen batzuk (kualitatiboagoak) garrantzia hartzen joan dira. Gaur egun motibazioaz askoz gehiago hitz egiten da, eta harrotasuna edo portaera asertiboa moduko kontzeptuk bolo-bolo dabilta gure artean.

Etorkizunean beraz, ezagutza-erabilera-motibazioa ardatza askoz modu integralagoan landu beharko dugu. Elementuetako bakoitza ezin da modu isolatuan landu eta, behar beharrezkoa da helburuak gehiago lotzea komunitatearen osasunari.

***Komunitate
sendo batek
motibazio
ezberdinetatik
jendea
erakartzeko
oinarria emango
digu.***

***Gune eta funtzio
hegemonikoak
behar ditu gurea
moduko
hizkuntza batek.***

***Bada garaia
euskalgintzan ari
garenok eta baita
euskaldunon
etorkizunarekin
konprometituta
dauden guztiok
ziklo berri bati
ekiteko, ahalik
eta modurik
adostuenean.***

Komunitatea eta hiztunei gehiago begiratzea tokatzen zaigu hurrengo urteetan, komunitatearen eta hiztunen osasunari gehiago begiratzea. Izan ere hiztun komunitatea trinkotzea eta hiztunak janztea lehen mailako helburu bihurtu behar ditugu. Eta hiztunak janzteaz ari garenean, harrotasuna, koherentzia eta ardura moduko baloreak lantzeaz ari gara.

Kanpainatetik buruz-burukora gehiago pasatzea eskatuko du kualifikatze horrek eta horretan, gizarte eragileek bezainbeste, administrazioak ere badu zer pentsatua.

Laburbilduz, ziklo berrian jarraituko du garrantzia izaten zenbat euskaldun garen eta zenbat erabiltzen dugun hizkuntza, baina komunitateak, garapenerako, nolako euskaldunak behar dituen galdetu beharko diogu gure buruari. Komunitate osasuntsu batek behar ditu muineko elementu trinkotuak eta periferia zabala izan, erakartzeko gai izango den eta hizkuntzarekiko positiboki posizionatuta dagoen edonor barneratzeko gai den periferia zabala.

4. Komunitatea ikuspegi zabalarekin lantzea ere funtsezkoa izango da aurrerantzean. Atzera begiratzerakoan erratzeko arrisku handirik gabe esan dezakegu, euskalgintzatik ez dugula behar beste lan egin euskalduna ez den erdal komunitatearekin. Euskara elkarrekin adibidez, euskaldunon komunitatea trinkotzeari garrantzia handia eman izan diogu, eta gutxi landu dugu gaztelera eta frantses hiztun elebarkarrekiko harremana. Ez gabiltza gainera komunitate arrotz baten gainean hitz egiten, euskaltzale asko baitago euskara ikasteko urratsa eman ez duena, baina euskararen alde lan handia egin duena: euskaldunon eta euskararen lagun asko dago erdaldun elebarkarren artean. Aliatu ezinbestekoak ditugu eta komunitatea, aurrerantzean, askoz ere modu zabalagoan ulertu behar genukeelakoan nago, euskararen eta euskaldunon alde dagoen edozein sartzen den zerbait moduan. Eta bakoitzarekin lan ezberdina egin beharko dugu, baina guztiekin.

5. Garai berriek eskatzen dute eragileen arteko harremanak berrikustea ere. Urtetan izan ditugun estrategia berezituak ez dute laguntzen konpartitzen ditugun helburu horiek lortzen. Ezberdintasun horiek egon dira administrazio eta gizarte mugimenduaren artean, baina baita gizarte mugimenduko kideen artean ere. Ez da bapatekoa izango, ez dugu guztia adostuko, baina has gaitezen helburuen gaineko adostasunak eraikitzen eta ondoren, estrategiak ezberdinak

izan arren, ahalik eta kohesio handienaren baitan lan egin dezagun. Hau ere ez da erronka erraza izango, baina garai berriek jokabide berriak eskatzen dituzte.

Hiztunekin bezala, eragileekin ere landu beharreko kontzeptuak ditugu, ardura eta koherentzia moduko kontzeptuak. Portaeratan koherente eta arduraz jokatzeko eskatu izan diegu hiztunei (zenbatetan erabili izan dugun Artzeren poema) eta, nago, eragileei ere beste hainbeste eskatu behar diegula; era guztietako eragileei: euskalgintzako erakundeei, hasteko, eta administrazio publikoari ere. Eredugarri izatearen ideia zabaltzeko behar dugu, defendatzen dugun hori praktikatzeko aitzindariak izatea.

Klabe askoz gehiago ere egongo dira ziklo berri honetarako, zalan-tzarik ez dut. Baina orain etorkizun hori irudikatzen hasteko ordua heldu da, eta denok egin behar dugu hori. Aurrerapausoa handia litzateke, hurrengo hiru edo lau hamarkadatarako estrategiak irudikatuko bagenu, eta handiagoa oraindik, irudikatze hori euskalgintza guztiak batera egingo balu, lehenago egon izan diren zenbait dinamika apurtuz.

Bidegurutzetara heltzerakoan dagoen arrisku handienetako bat noraezarena da, gure helmuga zein den ez jakitearena. Mapa berriak egiteko garaia da, GPSa programatzeko garaia eta horretarako, abiapuntua eta helmugak argitu behar ditugu lehen lehenik. Ausardiarekin eta erantzukizunez jokatzeko eskatzen du momentuak eta horrek berdin balio du euskalgintzako eragile guztientzat eta baita ardura politikoetan ari direnentzat ere. Guretik has gaitezke ziklo berriari heldu nahi badiogu. ●

***Ziklo berrian
jarraituko du
garrantzia izaten
zenbat euskaldun
garen eta zenbat
erabiltzen dugun
hizkuntza, baina
komunitateak,
garapenerako,
nolako
euskaldunak
behar dituen
galdetu beharko
diogu gure
buruari.***